



Urtetan motor industrial eta ekonomikoaren ardatz izan den Nerbioi ibaiak, azken garaiotan, balio berri bat eskuratu du: hazkunde filosofia berri bat, non garapen ekonomikoak, ezariezarian, bide egiten dion inguruaren garapen iraunkorrari eta baliabide naturalen errespetuari.

Oinez edo bizikletaz gozatzeko berreskuratu den ibai korridore honek Aiarako haranaren bihotzean murgiltzen gaitu. Ia 8 kilometro dituen ibilbide honetan, Laudio, Luiaondo eta Amurrio herriak lotuko ditugu, Nerbioiko parke linealaren bidez. Asmo handiko proiektu honek haraneko gerriko industrialari topagune berri bat eman dio zaindari duen natura ikusgarriarekin.



Gurutze Santuaren parrokia, Gardean.

IBILBIDEA

0 km	Gure abialekua Gurutze Santuaren parrokia da, Laudioko Gardea auzoan. Pare-parean Nerbioi ibaia gurutzatuko dugu Gardeako zubitik eta eskuinera bira egingo dugu, ibaiertzetik doan bizikleta bidea hartzeko. 300 metro eginda, asfaltozko bidetik jarraituko dugu. Bide horretan zirkulazio txikia dago.
1 km	Ibaia metalezko lehenengo pasabide gorritik gurutzatu eta norabide berean jarraituko dugu beste ibaiertzetik.  Adi! Errepidetik hurbil ibiliko gara, baina distantzia nahikora eta babestuta.
2 km	Pasabide oso luze batera iritsiko gara, ibaiaren lehenengo alde beretik.
2,3 km	Ibaia metalezko beste pasabide gorri batetik gurutzatuko dugu.
2,8 km	Eskuinera sartuko gara, gure norabidean jarraitzen duen asfaltozko bide batera, eta ibaiertz horretatik jarraituko dugu, bidean aurkituko ditugun zubiak baztertuz.
3,2 km	Eskuinera bira egingo dugu, gure ibilbidetik jarraitzeko.
3,7 km	Luiaondon (Aiara) sartuta, ibaia gurutzatuko dugu berriz beste pasabide gorri batetik, eta herriko etxeetara hurbilduko gara.



Luiaondo herrian, kale nagusian, zehazki, harrizko gurutze bat dago eta, diotenez, bertan zegoen Malato Zuhaitza, euskal imaginario kolektiboaren bost zuhaitz sakratuetako bat, lehenengo Bizkaiko jaun mitikoarekin lotua, Jaun Zuriarekin, hain zuzen ere.

4 km

Etxe artean metro batzuk egingo ditugu asfalto gainetik, eta segituan, zementuzko pistara sartuko gara, gure ibilbidean aurrera egiteko, ezkerretik.

4,5 km

Bidegurutzea. Ezkerrera Zubibarri zubia daukagu. Gurutzatu eta eskuinera bira egingo dugu, eta gero, beste ibaiertzetik jarraitu.



NERBIOKO UREN GAINETIK

Ibaiaren alde batetik bestera igarotzeko pasabide ikusgarriak dira, zalantzarik gabe, Nerbioi ibaiaren ertzak eta ubidea berreskuratzeke egin den prozesu biziaren ikurretako bat. Hiru pasabide aurkituko dituzu Gardea Luiaondorekin batzen dituen zatian; bi metaliko Luiaondo eta Markijana artean, eta beste bi pasabide udalerrri horren eta Salbioko geredaleku amurriarraren artean.

GOROBEL MENDILERROA



Gure ibilbidetik hurbil, Gorobel mendilerroaren profil izugarria gozatu ahal izango duzu. **Natura 2000 sarean** sartuta dagoen mendilerro honek horma handi bertikalak eta baso zabalak ditu. Landerretza da protagonista nagusia: basoak erkametez jantzita daude behealdean, eta pagoz erdiko hegaletan eta kotarik altuenetan. Inguru honetan, tokiko faunaren espezie ugarien artean, nabarmentzen dira gailurretako uhandrea, sai arrea, belatz handia eta mendebaldeko satorra.

Talaitik goza ditzakezu hegazti harraparien hegaldiak, habia **Delikako arroi-lako** zuloetan egiten dutenenak. Bertan miretsi daiteke, halaber, Nerbioi ibaiaren **300 metroko ur jauzi** ikusgarria. Gorobel mendilerroaren hegaletan hegazti migrazzaileen atseden toki ederrenetako bat ikusiko duzu: **Maroñoko urtegia**.



**4,8 km**

Zuzen jarraituko dugu, Luiaondoko geralekurantz.

5 km

Norabide berean jarraituko dugu geralekura sartzen den bizikleta bidetik, ibairantz jaitsiz.

5,2 km

Zuzen jarraituko dugu, gure eskuinetik, zubitik, datorren errepidea gurutzatuz. Ibaiaren ezkerretik jarraituko dugu, autoeskola baten ondotik.

6 km

Pasabide handi batera iritsiko gara. Zeharkatu egingo dugu, ibaiaren beste ertzerantz iristeko.





6,5 km

Bidegurutzea. Zuzen jarraituko dugu; trenbidearen azpitik pasatu eta, gero, zementuzko pistatik jarraituko dugu.

6,9 km

Pasabide batetik ibaia igaro eta beste ibaiertzetik jarraituko dugu.

7,8 km


Tubos Reunidos enpresaren parean, azken pasabidea gurutzatuko dugu ibaiaren eskuinaldera, eta Salbioko galekura iritsiko gara. Ibaiertzetik jarraituko dugu, ibaiaren eta trenbidearen artean, eta erreka gainean dagoen zubi txiki bat zeharkatuko dugu.

8,7 km

Ibilbidearen amaiera.



IBILBIDEAREN PROFILA



LEKU INTERESGARRIAK



NATURA ETA PAISAIA

1. Lamuzako parkea, Laudio
2. Nerbioiko parke lineala

Inguruan:

- Nerbioiko behatokia
- Gorobel mendilerroa



KULTURA

1. Malato zuhaitza (Luiaondo, Aiara)
2. Amurrio: hirigune historikoa
3. Amurrio: Likorearen museoa
4. Amurrio: Aresketamendi, energia berriztagarrien parkea
5. Laudio: Gastronomiaren euskal museoa
6. Laudio: hirigune historikoa
 - Artziniegako Arte sakratuaren museoa
 - Artziniegako Etnografia museoa
 - Erdi Aroko multzoa eta museoa Kexaan




AISIALDIRAKO GUNEAK

Inguruan:

- Nerbioiko parke lineala
- Lamuzako parkea (Laudio)
- Santa Luziako landak eta Ermuko Santa Maria (Laudio)
- Pandoko parkea (Artziniega)
- Garrastatxuko parkea (Baranbio)

MAPA




FITXA TEKNIKOA

Nola heldu:	Gurutze Santuaren parrokiatik, Laudioko Gardea auzoa
Distantzia, guztira:	8,7 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera:	1 ordu
Zailtasuna:	Txikia
Gomendatutako bizikleta:	BTTa
Desnibel metatua:	87 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...

AIARA, JAUNEN LURRA

Gure ibilbidetik hurbil Aiara eskualdeko harribitietako bat dago: **Kexaako monumentu multzo** ikaragarria, Ayalatarren leinuaren oinetxe zaharra. Erdigune nagusia moja domingotarren komentua da, 1378an egina. Done Joan elizan **Adatseko Andra Mariaren** erlikiak daude, baita Araiako **hiru belaunaldiren hainbat hilobi** eta erretaula bat ere. Inguruan, Ayalatarren etxean, XIV. mendeko eraikuntza militarren eredu bat ikus daiteke. Jauregi zaharreko hegoetako batean dago museoa, eta bertan, ikusgai, Ayalatarren historia.



Ayalatarren hilobia.

Artziniegako hiribildu noblea ere bisitatu beharra dago, Amurriotik hamabost kilometrora dagoena. Erdigune historikoan Erdi Aroko iraganaren zapora guztia nabari da. XIII. mendean sortua, alportxa etxean egitura eta hainbat jauregi kontserbatzen ditu, besteak beste XVI. mendeko dorretxea, egun hotela dena, Bengoatarren dorretxea eta parrokia, XVI. mendekoa. Bi kilometrora Arteko **Andra Mariaren santutegia** dago, XV. mendekoa, eta, bertan, bi harribitxi bikain: batetik, erretaula gotiko-flamenkoa, eta bestetik, kondairaren arabera Ama Birjina agertu zen artea, agian santutegia bera baino zaharragoa.